

Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



Es y no es un cuento

Eva Forest

HIRU

130 orrialde

12 euro

Eva Foresten ipuin errealistak

Historian gertatutakoak ahaztea ez zela komeni pentsatzen zuen Eva Forestek, eta ahanzturaren kontrako borroka egin zuen bere idazlan orotan. Ahalegin horren erakusgarri dugu *Es y no es un cuento*, Hiru argitaletxeak kaleratu berri duen liburua. 1985ean *Punto y Hora* aldizkarian plazaratu ziren lanak dira ia guztiak. Eva Forestek liburu honetan kontatu dituen gertaeretan halabeharrez protagonista izan zirenei buruzko gogoeta egiten da: Jose Miguel Beñaran *Argala*, Mikel Zabala edo Joseba Arregi, besteak beste. Baita haien berrero izandakoen aipamena ere.

Fantasian oinarritutako ipuinak

dira, baina garaiko errealitateak asko dute, adibidez PSO-Eren agintaldian indarrean jarritako legeei buruzkoak edo GALen terrorismoaren ingurukoak. ■



Lea Artibai. Eskolatik Eskualdera. De la escuela a la comarca

Ibai Muñoz Etxaniz

LEA ARTIBAI IKASTETXEA

204 orrialde

50 urtez martxan egondako lan ikastetxe baten historia

Lea Artibaiko Lan Eskola Parrokialak (1957-1976) duela 50 urte baino gehiago ireki zituen atea. Bertako Ikastetxe Kooperatiboa (1976-2007), berriz, hogeita hamar urte betetzera doa. Urteurren horiek direla-eta, eskolako ikasle izandako Ibai Muñoz Etxanizi zentroaren historia jasoko zuen liburua egiteko eskatu zituen ikastetxeko arduradunek. Jarritako baldintzak, honakoak: liburua ez zen eskolaren gaineko anekdota hutsen bilduma izan behar, haren bilakaeraren ikerketa baizik. Eta horretan ahalegindu da egilea, Eskola Parrokialaren sortzeaz gainera, Markinaldeko mugimendu sozial kristauak eta kooperatibismoa jasoz, protagonista anitzen ahozko lekukotasunak eta gaiari buruzko hainbat agiri bilduz. ■

Elliott Murphyren biografia euskaraz

Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak sortua da *Bosgarren haria* bilduma. Adituen eta zaletuen laguntzaz musikaren ikuspegi historiko-kritikoa eskaini nahi duten liburuz osatua dago. Irakurterrazak eta argazkiz apainduak argitaratzen dira eta egilearen iritzia azaltzen dituzte. Oraingoan, Elliott Murphy dugu protagonista. 1989tik Radio Euskadiko *La Jungla Sonora* saioa zuzentzen duen Joseba Martin da liburuaren egile. Berarentzat, Elliott Murphy ez da rock munduko ohiko pertsonaia: ez du disko askorik saltzen, ez da telebistan maiz agertzen eta bere musika ez da irrati-telebistetan asko entzuten. Baina Europan 150 bat kontzertu eskaintzen ditu urtero, eta mila-k jarraitzaile biltzen ditu. Gainera, Bilbo du jotzeko leku kuttunenetakoa. Horregatik konposatu zituen *Green river* eta *Bilbao Bo Diddley*, adibidez. ■



Elliott Murphy. Amerikarra Parisen

Joseba Martin


PAPER HOTSAK

178 orrialde

12 euro

Euskal antzerkia gogoetagai

Hegats literatur aldizkariaren 40. zenbakian jorratzen diren gaien artean, Alaitz Olaizolak eta Aizpea Goenagak aurkeztutako literaturbideak daude. Hala nola Xabier Mendiguren Elizegik osatutako kritikabidea, *Toribio Alzaga eta euskal antzerkiaren sorrera* izenburua duena. Euskal Antzerkiari buruzko txosten monografikoa ere argitaratu dute, besteak beste honako testuak biltzen dituen: Patri Urkizuren *XX. mendeko euskal teatroaz ikuspegi orokorra*; Eneko Olasagastiren *Antzerkiaren etorkizuna: erroetara itzultzea*; eta Oier Guilanen *Euskal teatroaren zirriborroa, zipriztinak, zirrikituak eta...* Horiez gain, Irune Berro kazetariak Ander Lipus izenez ezagunagoa den Inigo Ibarrari (Markina, 1971) egindako elkarrizketa ere bildu dute. Antzerki antropologoa, zuzendaria eta aktorea da Lipus eta Antzerkiola Imaginarioko sortzaile izan zen. ■



Hegats

Batzuen artean

EUSKAL IDAZLEEN

ELKARTEA

128 orrialde

7 euro



Salbatore Mitxelena XXV.

Batzuen artean

ZARAUZKO UDALA

186 orrialde

Salbatore Mitxelena literatur lehiaketaren uzta

Zarauzko Udalak urtero antolatu ohi du Salbatore Mitxelena literatur lehiaketa. Herriko eskoletako haur eta gazteak dira partehartzaile. 2006ko ipuingintza eta olerki sailean saridunak hauek dira: Deñe Arrieta, Jon Etxeberria, Lore Aranburu, Irati Ugalde, Ane Zulaika, Beñat Isasti, Maddi Taboada, Ane Lazkano, Karmele Martinez de Cabredo, Bingen Eceiza, Ainara Azkue, Irati Idiakez, Lore Zumeta, Aizpea Agoñes, Lore Pedrosa, Jorge Aduna, Aitor Martínez, Ainhoa Albizuri, Ane Aizpurua, Iñigo Arin, Naroa Etxeberria, Maider Esnal, Iñigo Oca-

mica, Jon Andoni Urdangarin, Oihan Larrañaga, Izaskun Larrañaga. eta Itziar Unanue. ■

Zapata gorriak jantzeari uko egin zion printzesa

Haurrei zuzendutako bilduma berri bat plazaratu du Ibaizabal argitaletxeak, Oker izeneko. Aurreneko zenbakian, Yolanda Arrietak idatzi eta Aitziber Alonsok marraztu duten *Oinutsik jauregian* izeneko kontakizuna agertzen da. Istorioaren korapiloa hauxe da: jauregi batean, bakoitzak bere jantzia zeukan. Erregeak galtzontzilo horiak, erregeinak titi-zorro berdeak eta printzesak zapata gorriak. Baina printzesak uko egin zion zapata gorriak jantzeari. Zer egin orduan? ■

Oinutsik jauregian

Yolanda Arrieta

IBAIZABAL

24 orrialde / 6,95 euro



FELIPE JUARISTI

«Bizitzari aurre egiteko modu asko dago. Politena, barrea»

Zer dela-eta idatzi duzu nobela umoretsua?

Nik umoregilea izan nahi nuen, baina inork esan ez zidanez non ikasi behar zen horretarako, ez non zen umoregile onen ikasketa handien fakultatea, atzizkiarekin geratu nintzen: alegia, umorerik gabeko egilea. Ez da niri umorea bost axola zaidalako, ezta gutxiagorik ere. Baina idatzi ditudan liburuen artean gutxi dira umorezkoak, serioak izan dira gehienak.

Etxearen negarra ez.

Ni ez naiz gizon serioa. Hala banintz, ez nintzatekeen idazle izango, Kutzako langilea edo udaleko funtzionarioa baizik. Uste dut bizitzari aurre egiteko modu asko dagoela, eta politena barrea dela. Baina barre egitea gaizki ikusia dago. Gizartean errazago onartzen dira negargarriak barregarriak baino. Oso jende gutxi egiten du barre bakean, haurrak, eroak edo adinekoak izan ezik. Baina barrea oso serioa da. Hain serioa, ezen hilgarria ere izan baitaiteke.

Hilgarritzat jo behar al dugu zure nobela hau?

Ez. Nik ez dut esango berau irakurtzean barrez hilko zaretenik; ez nuke halakorik nahi; jendeak hatzez seinalatuko ninduen eta esan ere bai, ozenki gainera, “horra hor barrez hiltzen duen gizona!”. Ez da parte onekoa. Dena dela, aukeran, hobe barre eragile izan, barre eraile baino. Liburua, benetan gertatutako kontu batetik sortua da. Bikote bat ari da etxe bila, bere garaian andregai eta biok aritu ginen bezala. Kontatuko banu zenbat ikusi genituen eta zer desastreak! Eta orain etxe bat egoera onean aurkitzea lehen baino zailagoa da, oso zaila.



DANI BLANCO

Felipe Juaristiren lehen umorezko nobela

Bizitzak aurpegi asko dauzka, eta batzuetan denak ez dira uste bezain logikoak

eta arrazoizkoak. Antzeko zerbait gertatzen zaie Felipe Juaristik bere aurreneko nobela umoretsuan aurkezten digun bikoteari eta haien alabatxoari. Egoera nahiko surrealista eta umoretsuak irudikatu ditu egileak. Elkarrekin bizitzera joan nahi duen bikote bati etxe bila dabilen bitartean gertatutakoak azaldu ditu. Bitartean, neska amaren etxean bizi dira, haren txakur eta katu guztiekin. Amak izugarri maite du alaba, baina ez hainbeste hark laguntzat hautatu duen gizona. Alabak gizona pikutara bidaltzea nahi luke, eta horretan ahaleginduko da tai gabe. Gazteek garbi dute etxe propioa behar dutela, bikote izaten jarraitu nahi badute behintzat. Gainera, nes-



Etxearen negarra

Felipe Juaristi

ELKAR

110 orrialde

10,50 euro

ka haurdun dago. Baina etxea aurkitzea oso-oso zaila egiten ari zaie. Azkenean, neska sei hilabete dagoenean, Donostiako Amara auzoko tren geltokitik irten eta “alokagai” hitza irakurriko dute etxe batean. Hantxe aurkituko dute aterpea. Hori bai, azken solairuan. Gaitzerdi, etxeak igogailua du; baina horrek ere kapritxosoa izan behar! ■

egileari galdezka